

JANIRE

Ederki gogoratzen dut Janirek lehenengoz begiak ireki zituen unea. Atera bezain pronto eskutan neukan gauza txiki hura. Mediku, bekarrio, erizain eta ez dakit ze jende gehiago zegoen. Gela hotz hura utzi eta ilunago zegoen ondoko beste batetan sartu nintzen, bakarrik, nire gauzatxo txiki harrekin. Begira nengoen maitekiro aita nintzela nola edo hala barneratu nahian, pozik, eta han ireki zituen bere begitxoak eta zuzen begira geratu zitzaidan. Ez dakit bere harriduraz begiratzen zidan edo zein itsusia nintzen bereganatu nahian zebilen.

Dagoeneko sei hilabete igaro dira eta harriturik nauka oraindik ere nola gai izan naizen horrelako gauza eder bat gure artera ekartzeko. Alaia, bihurria, ezin geldirik egon neskatilla hau! Bere aulkitxoan geldirik ikusten duten egunean afari batera gonbidatuko zaituztet guztioi, baina ez esperantza askorik eduki. Halere, bere irribarre batek, emandako nekeak erraz estaltzen ditu.

Jaio eta gutxira Rexu-enea, Marijo-etxe, Iosune-toki, Ainhoa-leku... edo nahi baduzue Karrikako haurtzaindegira hasi zen gure poxpoliña. Hasieran errezeloren bat baneukan moldatuko ote zen edo arrotz egingo zitzaion, baina bigarren eguneko ahaztuak nituen nire zalantzak. Alderantziz, beste zalantza batzuk sortu zitzaizkidan, etxean baino hobeto ez ote zegoen haurtzaindegian!

Orain hementxe daukat nire ondoan, jolasten ari da bere jostailuekin, bere betiko ezin egonarekin, noizean behin begiratzen dit irribarre bat askatzen du eta gero pentsakor geratzen da esanez: Zertan ari ote da ero hau beti trasto horrekin gora eta behera, beno ni nire asuntoetara. Eta hor jarraitzen du bat bota eta besteari helduz. Aurrerago izango du buruari hamaika buelta emateko beta baina oraingoz gorriari heldu edo urdiñak ze soinu egingo duen dira bere buruhauste bakarrak.

Besterik gabe, laster izango duzue gure lurrikartxoren berri eta onerako izango ote da! Benga Janire esan agur denei, berriz ere harriduraz begiratzten dit zer esaten ari naizen ulertuko balu bezala.